

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Udal Musika Eskolaren Antolaketa eta Funtzionamendua arautzeko Erregelamenduaren hasierako onespena.**

Basauriko Udalak, 2026ko uztailaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Hasiera batean onestea Basauriko Udal Musika Eskolaren Antolaketa eta Funtzionamendua arautzeko Erregelamendua, Erabaki honen Eranskin gisa erantsi dena.

Bigarrena: Erabaki hau hogeita hamar (30) egun baliodunez jendaurrean jartzea, Udaletxeko iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egokitzea jotzen dituzten alegazio, erreklamazio edo iradokizun guztiak aurkez ditzaten, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 b) artikuluen arabera.

Epe hori igaro ondoren, Udalbatzak epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak ebatziko ditu eta behin betiko onartuko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betiko hartutzat joko da.

Behin betiko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluen arabera. Testua indarrean jarriko da aipatutako lege-testuaren 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren.

Basaurin, 2026ko abuztuaren 12an. —Jarduneko Alkatea, Berta Montés Beltrán

**BASAURIKO UDAL MUSIKA ESKOLAREN ANTOLAKETA
ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA (AFE)****AURKIBIDEA**

Atariko titulua. — *Izena, egoitza, izaera juridikoa eta xedeak.*

I. titulua. — *Antolaketa eta funtzionamendua.*

I. kapitulua. — *Kudeaketa- eta zuzendaritza-organoak.*

1. atala. — Kide anitzeko kudeaketa-organoak.

2. atala. — Kide bakarreko kudeaketa-organoak.

II. kapitulua. — *Koordinazio didaktikoko organoak.*

III. kapitulua. — *Kontsulta eta parte-hartze organoak.*

1. atala. — Zentroaren Kontseilua.

IV. kapitulua. — *Irakasleen funtzionamendu-araubidea.*

V. kapitulua. — *Ikasleen funtzionamendu-araubidea.*

1. atala. — Eskubideak eta betebeharrak.

2. atala. — Faltak eta zehapenak.

II. titulua. — *Plan pedagogiko orokorra.*

I. kapitulua. — *Hezkuntza-eskaintza.*

1. atala. — 1. maila.

2. atala. — 2. maila.

3. atala. — 3. eta 4. mailak.

4. atala. — Irakaskuntza-errefortzua eta iraunkorrak ez diren ikastaroak.

III. titulua. — *Ikasleak onartzeko eta bajak eta uko-egiteak izapidetzeko prozedura.*

I. kapitulua. — *Ikasleak onartzeko prozedura eta itxarote-zerrenda.*

1. atala. — Ikasleak onartzeko prozedura.

2. atala. — Itxarote-zerrenda.

II. kapitulua. — *Bajak, eszedentziak eta uko egiteak.*

IV. titulua. — *Instalazioak, musika-tresnak eta bestelako materialak erabiltzeko baldintzak*

I. kapitulua. — *Instalazioak erabiltzea.*

II. Kapitulua. — *Materialak eta musika-tresnak erabiltzea.*

III. kapitulua. — *Gardentasuna, informazio publikoa eta Eskolaren presentzia digitala.*

Xedapen Gehigarriak.

Xedapen Iragankorrak.

Xedapen Indargabetzailea.

Azken Xedapenak.

**ATARIKO TITULUA****IZENA, EGOITZA, IZAERA JURIDIKOA ETA XEDEAK****1. artikulua. — Titulartasuna. Izaera juridikoa**

1. «Basauriko Udal Musika Eskola» Musika Eskola Publikoa musika irakaste-ko zentroa da, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolen maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak arautzen duena, bere eremu orokorrean. Eskolaren helburu orokorra da musikaren alorreko prestakuntza praktikoa ez-arautua eskaintzea, eta, horrekin batera, bokazio eta gaitasun berezia duten ikasleak bideratzea eta ikasketa profesio-naletarako prestatzea. Basauriko Udalari dagokio Musika Eskola kudeatzea.

2. Alor ekonomiko eta administrazioari dagokionez, Basauriko Udalaren gobernu-organismoek eta Erregelamendu honetan aurreikusitako gainerako organismoek beren eskumenen barruan hartutako erabakien menpe egongo da Musika Eskola.

Gainerako maila guztietan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren araudia bete beharko da.

3. Erregelamendu honetako arauak aplikatuko zaizkie irakasleei, irakasle ez diren langileei, ikasleei eta sor daitezken familia-elkarteei.

2. artikulua. — Egoitza

Musika Eskola Publikoaren egoitza Basaurin dago, «Basauriko Udal Musika Eskola» udal eraikinean (Luis Petralanda z.g.).

3. artikulua. — Xedeak

1. Erregelamendu honen xedea da Basauriko Udal Musika Eskolaren antolamendua eta barne-funtzionamendua arautzea.

Bestalde, Basauriko Udal Musika Eskolaren helburua da musika irakastea, eta musika-kultura zein haren adierazpideak sustatzeko eta horien zabalkundea egiteko jarduerak egitea. Oro har, jarraian adierazitakoak dira erakundearen xedeak:

- a) Ikasleei beren garapena aberastuko duen formakuntza-jarduera ludikoa eskaintzea, eta, hala, batetik, jakin-min artistikoa dutenei beren garapen fisiko, afektibo eta mentalerako tresna aparta eskaintzea, eta, bestetik, norbanakoen arteko komunikazio-lotura berri bat sortzea, gero eta konplexuagoa lehiakorragoa eta desegituratuagoa den gizarte honetan.
- b) Interesa dutenei musika-hezkuntza zabal eta askotarikoa eskaintzea. Musika-hezkuntza horrek aukera eman beharko die prestakuntza artistikoa ez-arautua jasotzeko, eta, horren bidez, gazte-gaztetatik musika ezagutu eta estimatzea bultzatzeko. Era berean, ahalbidetu beharko du berezko sen kritikoa garatzea edozein musika adierazpenaren aurrean, estiloa, garaia edo joera edozein dela ere.
- c) Oinarrizko adierazpen-elementu gisa ahots- eta instrumentu-prestakuntza sendoa eskaintzea, Eskolaren Ikasketa Planaren arabera modu progresiboan antolatutako ikasgai kolektibo eta indibidualen bitartez.
- d) Musika zentzu zabalenean ezagutu eta gozatzeko prestakuntza- eta zabalkunde-jarduera sorta oparoa eskaintzea, eta, horren bidez, ikasleen adierazpen artistikoa ahalbidetzea —bai indibiduala, bai kolektiboa— eta jendaurrean jotzeko zaletasuna bultzatzea.
- e) Orientabidea eta prestakuntza zabalagoa eskaintzea beren gaitasun eta zaletasuna dela-eta musika-ikasketa arautuak egin nahi dituzten ikasleei, eta Eskola harrobi bihurtzea musika-ikasketa arautuak eskaintzen dituzten zentroetarako.
- f) Lurraldeko eta nazioarteko gainerako eskolekin koordinatzea, irakaskuntza-metodologiak, irakasleak eta ikasleak, baterako jarduerak, antolakuntza- eta funtzionamendu-ereduak eta abar trukatzeko ahalbidetuko duten harremanak sor daitezen.



- g) Modu positiboan eragitea musika-kultura herrikoian, bai ikasleak heziz, baita gizartean musikaren zabalkunde zuzena eginez ere. Bigarren horren ildoan, taldeek jarduera publiko etengabea izango dute, eta parte hartuko dute udalerrian antolatzen diren kultura-jardueretan.
 - h) Herriko eta eskualdeko musika-tradizioak bildu eta horien zabalkunde egitea, Eskola kultura-identitatearen erreferente bihurtzeko.
 - i) Musika-kultura, bere zentzurik zabalenean, ezagutarazten eta haren zabalkunde egiten lagunduko duen beste edozein jarduera egitea.
2. Eskolak bi hizkuntza ofizialak bermatuko ditu arretan, dokumentazioan eta informazio publikoan, eta euskara erabiltzea lehenetsiko du, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen arabera.
3. Eskolak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna txertatuko du, zeharkakotasunez, bere antolakuntzan, irakaskuntzan, bizikidetzan eta komunikazioan; bereziki, hizkuntza inklusiboari, eta indarkerien jarraipenari eta prebentzioari dagokionez. Hala egiteko xedatzen du martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duenak.

I. TITULUA

ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

4. artikulua. — *Kudeaketa, administrazioa eta zuzendaritza*

Basauriko Udalari dagokio Eskola kudeatzea, administratzea eta zuzentzea, eta bera da erakundearen titularra.

Erregelamendu honetan jasotako eginkizunek, baldin eta onestea, baimentzea, ebaztea edo administrazio-ahalaren beste edozein ekintza eskatzen badute, Basauriko Udalari egokituko zaizkio, kasu guztietan.

I. KAPITULUA

KUDEAKETA- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOAK

1. ATALA

KIDE ANITZEKO KUDEAKETA-ORGANOAK

5. artikulua. — *Basauriko Udala*

Basauriko Udalaren eskumen eskusiboa izango dira «Basauriko Udal Musika Eskola» Basauriko Musika Eskola Publikoari eragiten dioten gaiak, hezkuntzaren alorrekoak izan ala ez, Erregelamendu honetan beste organo batzuei espresuki esleitzen ez baizikie.

6. artikulua. — *Zuzendaritza Taldea*

1. Osaera: Zuzendaritza Taldea osatuko dute zuzendari-lanak egiten dituen pertsonak, ikasketaburuak, idazkariak eta irakasleen Klaustroaren ordezkari batek.

Ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen kopurua parekidea izango da.

2. Zuzendaritza Taldea hilean behin bilduko da, gutxienez. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen den guztietan bildu ahalko da, bai zuzendariak deituta, bai kide guztien herenak hala eskatuta.

3. Zuzendaritza Taldeari dagokio zerbitzuaren lidergo pedagogikoa aurrera eramatea. Lidergo pedagogiko hori, gainera, egikaritu beharko du administrazio- eta hezkuntza-eginbeharrak orekatzen dituen lankidetzarik-ikuspegia aintzat hartuta. Honako hauek dira Zuzendaritza Taldearen eskumenak:



- a) Oro har, eskola-jarduera koordinatzea, beste organo batzuen berezko eskumenak eragotzi gabe.
- b) Batasuna eta koherentzia ematea irakaskuntzari lotutako alderdi guztiei, Ikasturte Planean jasotako planteamenduen arabera.
- c) Zentroaren Kontseiluak mahaigaineratutako kexei eta iradokizunei erantzutea.
- d) Izaera pedagogikoko zuzenketa- eta prebentzio-jarduerak ezarri eta berrikustea.
- e) Eskolako organoei dei egitea bilera eta jarduera akademiko guztietara.
- f) Barne- eta kanpo-organoei egindako proposamenak aztertzea eta zentroaren titularrari helaraztea. Eta, horrekin batera, proposamenak nola gauzatu ebaluatzea.
- g) Zentroaren hezkuntza-eskaintza hobetzeko eta haren zabalkundea egiteko proposamenak egitea.
- h) Eskola-egutegia aztertzea, garatzea eta zentroaren titularrari proposatzea.
- i) Ikasturte Plana eta Ikasturte Amaierako Ebaluazio Memoria egitea eta ontzat ematea, aurretiaz zentroaren titularrari kontsulta eginda.
- j) Zentroaren Irakaskuntza Proiektua berrikustea eta zentroaren titularrari beharrezkotzat jotako aldaketak proposatzea, onetsi dezan.

7. artikulua. — Irakasleen Klaustroa

1. Koordinazio pedagogikorako barne-organoa da Irakasleen Klaustroa, eta Musika Eskolako irakasle guztiek osatzen dute.

Zentroaren zuzendaria izango da Klaustroaren lehendakaria, eta, hura ez badago, berak eskuordetutako irakaslea.

Idazkaria Klaustroko kideetako bat izango da, hurrenkera alfabetikoaren arabera dagokiona. Bileren akta jasoko du, eta hiru hilean behin aldatu egingo da. Aktan, bilera non eta noiz izan den, jorratutako puntu nagusiak, eta hartutako erabakien edukia jasoko dira.

2. Klaustroa lehendakariak deituko du, hiruhilekoan behin, gutxienez. Kideen heren batek hala eskatzen duenean ere deitu ahalko da. Kasua hori bada, eskaera egiten dutenek adierazi beharko dute zein gai jorratu nahi duten, eta lehendakariak gai-zerrendan jaso beharko ditu. Bigarren kasu horretan, bilera egin beharko da eskaera egiten den datatik hamabost eguneko epean.

Ikasturte hasieran ere bilduko da Klaustroa, ikasturterako antolakuntza pedagogikoa onesteko eta zentroaren titularrari Ikasturteko Plana helarazteko. Ikasturte amaieran, berriro batuko da Klaustroa, ikasturtearen bilakaerari buruzko txostena egiteko (urteko memoriaren parte da) eta hurrengo ikasturteko Plan Orokorra zehazteko.

3. Lehendakariak finkatuko du gai-zerrenda, jorratu beharreko kontuekin. Klaustroko kideek aurretiaz proposatzen dizkioten gaiak ere jaso ahalko ditu bertan.

Gai-zerrenda Irakasleen Gelako iragarki-taulan jarriko da, eta posta elektronikoz ere bidaliko da, bilera-data baino bost egun lehenago, gutxienez. Salbuespenez, premia dagoen kasuetan, nahikoa izango da bi egun lehenago jakinaraztea.

4. Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak.

5. Klaustroan parte hartzea irakasleen barne-jarduera pedagogikoaren parte da, eta, beraz, Eskolaren barne-antolakuntzaren arabera, irakasleek klaustroa joan beharko dute, bidezko arrazoirik tarteko ez bada. Parte-hartzea edo botoa eskuordetzea barnean egingo da, modu operatibo batean. Gainera, Idazkaritzan jakinarazi beharko da.

6. Honako hauek dira Irakasleen Klaustroaren eginbeharrak:

- a) Zentroaren Urteko Plana egitea eta baliozkotzea, ondorio pedagogikoetarako, eta zentroaren titularrari helaraztea, onetsi dezan.
- b) Ikasturtearen Urteko Memoria egitea eta zentroaren titularrari helaraztea.



- c) Ikasleak ebaluatzeko eta errehabilitazio-lanetarako irizpideak definitu eta koordinatzea.
- d) Ikasleei orientabidea eta tutoretza eskaintzeko zereginak antolatzea eta zuzentzea.
- e) Eskola-ordutegia eta ikasgelen eta ekipamenduen banaketa zehazteko irizpideak finkatzea.
- f) Zentroaren titularrari konponbidea eskaintzea, ikasle zehatzen baten irakaskuntzari dagokionez.
- g) Esperimentazio eta ikerketa pedagogikoaren alorreko ekimenak sustatzea.
- h) Ikastaroak, proiektuak, entzunaldiak eta master classak proposatzea eta antolatzen laguntzea.
- i) Zentroan aplikatzea dagokion araudia ezagutzea.
- j) Zentroaren Kontseiluan irakasleen ordezkariak izango direnak hautatzea.
- k) Erregelamendu bidez esleitzen zaizkion beste guztiak.

2. ATALA

KIDE BAKARREKO KUDEAKETA-ORGANOAK

8. artikulua. — Zuzendaria

1. Musika Eskolaren ordezkari operatibo gorena da, eta zentroaren barne-ordezkaria ere bai. Bere gain hartuko ditu zuzendariaren berezko eginbeharrak, eta irakaskuntzarekin uztartu.

2. Zuzendariak Irakasle Taldea gidatuko du, eta, Zentroaren Kontseiluaren laguntzarekin, dagozkion proposamen eta erabaki operatiboak aurkeztuko ditu, araudia eta Erregelamendu hau aintzat hartuta.

3. Zuzendaria zentroaren titularrak izendatuko du, Irakasleen Klaustroak bere kideen artean proposatuta, lau urterako.

Zuzendariak bere eginkizunak utziko ditu agintaldia amaitzean, edo, gerora sortutako edozein arrazoiengatik, zentroan eskolak emateari uzten dionean edo bere eginkizunak bete ezin dituenean.

Kargu-uztea proposatu ahalko du zuzendariak berak edo Irakasle Klaustroak, kideen gehiengo osoz, eta zentroaren titularrari jakinaraziko zaio bere zereginen ez-betetze larria suertatzen denean edo kargua betetzea ezinezko egiten duten inguruabarrak suertatzen direnean.

- 4. Honako hauek dira zuzendariaren eskumenak:
 - a) Zerbitzuaren koordinazio operatiboa egitea, bai zentroaren titularrarekin, baita hezkuntzaren eta kulturaren alorreko eragileekin ere.
 - b) Irakasleak antolatu eta koordinatzea, eta gainbegiratzea esleitutako eginbeharrak, ordutegiak eta barne-funtzionamenduko arauak betetzen dituztela, zerbitzua modu eraginkor eta egokian ematen dela bermatzeko.
 - c) Ekitaldi akademikoak eta Zuzendaritza Taldearen saioak deitu eta zuzentzea.
 - d) Musika Eskolaren jardura guztiak zuzendu eta koordinatzea, indarreko xedapenekin eta onetsitako plan pedagogikoekin bat.
 - e) Zentroaren titularrari proposatzea ikasketaburua izendatu dezala, Irakasleen Klaustroko kideen artean.
 - f) Zentroaren Kontseiluari eta Irakasle Taldeari pertsona bakarreko organoetarako izendapenen berri ematea.
 - g) Zuzendaritza Taldearekin batera, Ikasturtearen Urteko Memoria egitea, alor pedagogikoetan eta antolakuntzari lotutakoetan.
 - h) Zentroaren titularrari eskatutako estatistika-memoriak eta datuak bidaltzea, ezarritako formatu edo prozeduren arabera.



- i) Ikasle eta irakasleen eskaerak Zentroaren Kontseiluari eta zentroaren titularrari helaraztea.
- j) Zentroaren titularrari beste eskola eta kultura-entitate batzuekin lankidetzan ari-zeko eta koordinatzeko proposamena egitea.
- k) Zentroaren bizitza pedagogikoari buruzko informazioa bermatzea eskola-komunitatearen sektore desberdinei eta haiek ordezkatzeko dituzten organizazioei.
- l) Eskolaren baliabide materialen eta instalazioen eguneroko erabilera eta kontrola antolatzea, eta zentroaren titularrari horren kontu ematea.

9. artikulua. — Ikasketaburua

1. Ikasketaburua zentroaren titularrak izendatuko du, zuzendariak proposatuta, zentroko irakasleen artean. Karguak lau urte iraungo du, ez bada iraupen hori aldatu egiten dela, zerbitzua antolatzeko beharrianak direla eta.

Edozelan ere, ikasketaburua kargutik kendu ahalko da, edo haren zereginak eten, agintaldia amaitu aurretik, baldin eta ez-betetze larriak tartean badira eta, betiere, zuzendariak txosten arrazoitua egin eta interesduna entzun eta gero.

- 2. Honako hauek dira ikasketaburuaren eginbeharrak:
 - a) Zerbitzuaren zuzendaria ordezkatzeko antolakuntza-lanetan eta koordinazio pedagogikoan, hura ez dagoenean.
 - b) Irakasleen eta ikasleen jardura akademikoak koordinatzea eta jardura horiek egiten direla zaintzea, jardura osagarriak eta eskolaz kanpokoak barne.
 - c) Irakasleekin jardura akademikoak koordinatu eta antolatzea.
 - d) Irakasleen Klaustroak ikasleak ebaluatzeko ezarritako irizpideak betetzen direla zaintzea.
 - e) Ikasketa-ordutegiak egitea, Zuzendaritza Taldearen gainerako kideekin eta Urteko Programazio Orokorrearekin bat; eta ordutegi horiek betetzen direla zaintzea.
 - f) Aparteko laguntza jasotzen duten ikasleen formakuntza osagarria programatu eta koordinatzea, ikasle horiek araubide arautura sartzea helburu.
 - g) Zentroko Irakasleen Prestakuntza Plana jasotzea Urteko Programazio Orokorrean, aintzat hartuta, batetik, Zuzendaritza Taldeak eta Irakasleen Klaustroak egindako proposamenak, eta, bestetik, zentroak berak ematen dituen aukerak.
 - h) Zuzendariak eskatutako irizpenak egitea, eta irtenbideak proposatzea irakaskuntzaren alorrean irakasleei eta ikasleei lotuta suertatzen diren kasu gatazkatsuetarako.
 - i) Zuzendariak, bere eskumenen barruan, esleitutako beste edozein eginbehar.

II. KAPITULUA**KOORDINAZIO DIDAKTIKOKO ORGANOAK****10. artikulua. — Irakasle tutoreak**

Ikasle bakoitzak tutore bat izango du, zeina bere musika-tresna edo kantu-irakaslea ere izango baita. Irakasle tutoreak honako eginbehar hauek izango ditu:

- 1. Ikasleen tutore gisa:
 - a) Ikasleei orientabidea eta aholkularitza eskaintzea, bai beren hezkuntza- eta lanbide-aukerei buruz, bai hautazko ikasgaiak aukeratzekoan.
 - b) Ikasleen interesak ezagutzea, haiei eskola-bizitzan integratzen laguntzea, eta haiengan parte hartzeko jarrera sustatzea.
 - c) Ikasleak ebaluatzeko prozesua koordinatzea.
 - d) Bere ardurapeko ikasleen banakako barne-dokumentazio akademikoa betetzea, eta ikasleei eta haien familiei informazioa ematea, irakaskuntza-jarduerarekin eta -errendimenduarekin zerikusia duen guztiari buruz.



- e) Ikasleen emaitza akademikoak baloratzea eta beharrian indibidualak pertsonalizatzea. Konfiantza- eta hurbiltasun-harremana eraikitzea, tutore-lanak orientatzea eskaini dezan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- f) Ikasleei integratzen laguntzea, eta ikasgelan edo beste irakasle batzuekin sor daitezkeen gatazketan esku hartzea edo gatazka horiek konpontzea.
- g) Hutsegiteak kontrolatzea, eta ikasketaburuari eta familiei horien berri ematea.
- 2. Familiei dagokienez:
 - a) Familiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren partaide egitea: aurrerapenen eta zailtasunen berri ematea, hartu beharreko neurriak jakinaraztea eta neurri horiek aurrera eramateko beren laguntza eskatzea.
 - b) Goragoko ikasturte edo etapa batera igarotzeko aukeraren berri ematea, eta azaltzea horietara nola sartu.
 - c) Sustatzea familiek zentroan parte har dezatela.

III. KAPITULUA

KONTSULTA ETA PARTE-HARTZE ORGANOAK

1. ATALA

ZENTROAREN KONTSEILUA

11. artikulua. — *Izaera eta osaera*

1. Zentroaren Kontseilua da Eskolaren hezkuntza-komunitatea osatzen duten norbanako eta kolektiboek parte hartzeko organoa.

Aholkua eta informazioa emango die hezkuntza-komunitatearen sektore guztiei.

2. Arau orokor gisa, honako hauek osatuko dute Zentroaren Kontseilua:

- Kulturako zinegotzia.
- Zuzendaria.
- Ikasketaburua.
- Irakasleen Klaustroaren ordezkari bat.
- Basauriko Udalaren Kultura Ataleko burua.
- Adin txikikoen familien ordezkari bi.
- Ikasleen ordezkari bi, adin nagusikoak.

3. Zentroaren Kontseiluko kolektibo bakoitzak (irakasleak, ikasleak eta ikasleen familiak) bere ordezkariak hautatuko ditu, horretarako deitutako hauteskundeetan eta bi urterako, ez bada kolektiboak kargutik kentzen dituela.

Aldi horretan zehar hutsik geratzen diren tokiak bete egingo dira.

Dagokion sektoreak baino ezingo ditu hautatu Eskola Kontseiluko kideak, zeinak sektore bakarrerako izan ahalko baitira hautagai, sektore batekoak baino gehiagokoak izan arren. Ondorioz:

- Irakasleak irakasleen sektorea ordezkatzeko bakarrik hautatuak izan ahalko dira, beste kolektibo bateko kide ere izan arren.
- Eta ikasleen familiak, berriz, familien ordezkari gisa baino ezingo dira hautatuak izan, ikasleen sektoreko kide badira ere.

12. artikulua. — *Kideak hautatzea eta berritzea*

1. Zentroaren Kontseiluko kideak hautatzeko prozedura ikasturtearen lehen hiru hilabeteetan zehar egingo da.

2. Botoa isilekoa eta zuzena izango da, eta ezingo da eskuordetu. Hauteskundeak egingo dira zuzendariak esandako toki eta unean, eta, hautaketa-prozesuak berme guztiak bete ditzan, boto-kontaketa egiteko mahaia eratuko da, non dagokion kolektiboaren hiru kide egongo baitira, zozketa bidez hautatuak.



Parte hartzea sustatzeko, postaz ere bozkatu ahalko da. Posta bidezko botoak zuzendariak jaso beharko ditu, beranduenez hauteskundeak baino 24 ordu lehenago.

3. Zentroaren Kontseiluko kideen erdiak berrituko dira, txandaka. Erdi bakoitza honelaxe eratuta egongo da:

- Lehenengo erdia: irakasleen ordezkari bat eta familien ordezkari bat.
- Bigarren erdia: gainerako kideak.

13. artikulua.— Funtzionamendua

Urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez, ikasturtea hasi eta amaitzen denean, lehendakariak deituta edo, salbuespenez, kideen herenak eskatuta. Azken kasu horretan, bilera egin beharko da eskaera egiten den datatik 15 eguneko epean.

Zentroaren Kontseiluaren gomendioak baliodunak izan daitezten, bertaratuen gehien-goak onartu beharko ditu. Berdinketarik egonez gero, Basauriko Udalaren Kulturako zinegotziaren kalitateko botoaren bidez hautsiko da.

Kontseiluaren bilera guztiak aktan jasoko dira. Akta horretan, honako hauek agertu beharko dira: bileraren tokia eta data; bildutakoen izen-abizenak; hartutako erabakiak; bozketen emaitzak, eta eztabaiden argudio eta arrazoi nagusiak. Aktek Kulturako zinegotziak sinatuta egon beharko dute.

14. artikulua.— Eskumenak

Honako hauek dira Zentroaren Kontseiluaren eskumenak:

- a) Ikasleak onartzeko arauak betetzen direla zaintzea, eta jarraitutako irizpideen gaineko balizko aldaketak proposatzea.
- b) Gatazkak konpontzen laguntzea eta zuzenketak proposatzea, xede pedagogikoarekin, Erregelamendu honen arabera zentroko bizikidetzari larriki eragiten dioten ikasleen jarrerei erantzuteko.
- c) Zentroaren Urteko Programazio Orokorren eta zentroaren funtzionamendua gaineko balizko aldaketak baloratu eta proposatzea.
- d) Zentroaren errendimendu akademikoa aztertzea eta bere bilakaera baloratzea.
- e) Ikasleak eta familiak zuzendariarekin edo irakasleekin lankidetzan aritzeko foroa izatea, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzeko.
- f) Zentroaren Urteko Memoriaren berri jasotzea.
- g) Hezkuntza-proiektuari lotutako proposamenak egitea.
- h) Zentroak inguruko instituzioekin dituen harremanak ezagutzea.
- i) Esleitu ahal zaion beste edozein.

IV. KAPITULUA

IRAKASLEEN FUNTZIONAMENDU-ARAU BIDEA

15. artikulua.— Irakasleak

Irakasleen ardura da esleituta dituzten ikasgaiak eta formakuntza-eremua pedagogikoki garatzea, eta, ildo horretan, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hezkuntza-proiektuaren arabera definitzea, egituratzea eta bideratzea.

16. artikulua.— Betebeharrak

Irakasleek honako betebeharrak hauek dituzte:

- a) Eskolak prestatu, antolatu eta ematea. Horrekin batera, klasean ordena eta disziplina zaindu, eta aprobetxamendua bermatzea, eta, ezohiko gertaerarik egonez gero, arduradunari jakinaraztea.
- b) Zentroaren jardueretan parte hartzea, modu aktiboan.
- c) Zentroa antolatzen eta ondo funtzionatzen laguntzea.



- d) Ikasleen emaitza akademikoak baloratzea eta beharrian indibidualak pertsonalizatzea.
Ikasgaien programazioen exigentzia-maila eta probak ebaluatzeko irizpideak behar bezain malguak izango dira, Eskolako ikasleen askotariko interesetara, gaitasunetara, motibazioetara eta adinetara egokitu ahal izateko, Zentroaren Ikasketa Planarekin bat.
- e) Ikasleen tutore-lanak egitea: ikasgaiaren urteko programazioari buruzko argibideak, eta orientabide akademiko eta profesionala eskaintzea.
- f) Ikasleen familiekin edo haien legezko tutoreekin harremanetan jartzea, beharrezkoa den kasuetan (justifikatu gabeko ez-etortzeak, jokamolde-aldaketak, laguntzak eta abar).
- g) Irakaskuntza-lanetarako materialak eta guneak behar bezala erabiltzen direla gainbegiratzea.

17. artikulua. — Eskubideak

Irakasleek honako eskubide hauek dituzte:

- a) Zentroaren Hezkuntza Proiektua, Antolakuntza eta Funtzionamendua arautzen duen Erregelamendua, Zentroaren Curriculum Proiektua eta dagokion ikasgaiaren Programazio Didaktikoa ezagutzea.
- b) Zentroaren instalazioak eta baliabide materialak erabiltzea beren zereginetarako, finkatutako ordutegi eta arauak errespetatuta.
- c) Hezkuntza-komunitate osoak haiek egokiro eta begirunez tratatzea.
- d) Egoki iritzitako iradokizunak, ideiak, kontuak, gorabeherak edo arazoak adieraztea.
- e) Irakasleen Klaustroaren parte aktibo izatea.

18. artikulua. — Ikasleen tutore-lana

Ikasleen tutore gisa egin beharreko lanak honako hauetan eragingo du:

- a) Orientabide akademiko eta profesionala eskaintzea.
- b) Beren ikasgaiaren Urteko Programazioaren berri ematea: helburuak, gutxieneko edukiak, ebaluazio-irizpideak, ebaluazio-prozesua eta abar. Horrekin batera, zentroaren funtzionamenduari buruzko argibideak ematea; bereziki, ikasleen jardun akademikoari eragiten dieten administrazio-prozesuei buruzkoak.
- c) Ikasleen emaitza akademikoak baloratzea eta beharrian indibidualak pertsonalizatzea. Konfiantza- eta hurbiltasun-harremana eraikitzea, tutore-lanak orientabidea eskaini dezan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- d) Ikasleen autonomia eta independentzia sustatzea, hazkunde-prozesuan eta autoestimuan laguntzeko.
- e) Ikasleei integratzen laguntzea, eta ikasgelan edo beste irakasle batzuekin sor daitezkeen gatazketan esku hartzea edo gatazka horiek konpontzea.
- f) Hutsegiteak kontrolatzea eta tutoreari horren berri ematea.

19. artikulua. — Tutore-lana, Irakasle Taldeari dagokionez

Irakasle Taldeari lotuta, tutore-lanak honako hauek ekarriko ditu:

- a) Hezkuntza-jarduera koordinatzea norberaren ikasleen gainerako irakasleekin, ikasketaburuarekin batera.
- b) Hezkuntza-beharrian bereziak dituzten ikasleentzat curriculuma moldatzeko aukera aztertzea.

Ikasgaien programazioen exigentzia-maila eta probak ebaluatzeko irizpideak behar bezain malguak izango dira, Eskolako ikasleen askotariko interesetara, gaitasunetara, motibazioetara eta adinetara egokitu ahal izateko, Zentroaren Ikasketa Planarekin bat.



Tutoreak irakasle guztien hezkuntza-jarduera koordinatuko du. Horrez gain, familiekin edo legezko ordezkariekin harremanetan egongo da, etengabe, eta norbanakoen berezitasunei erantzuteko neurrien berri emango die.

- c) Irakasleak ebaluazio-prozesuarekin koordinatzea ahalbidetzea, ikasketaburua-ekin batera.

V. KAPITULUA

IKASLEEN FUNTZIONAMENDU-ARAU BIDEA

1. ATALA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

20. artikulua. — *Betebeharrak*

- a) Klasera joatea, zentroak antolatutako jardueretan parte hartzea eta finkatutako ordutegiak betetzea.
- b) Ikasturtean zehar ematen diren hutsegiteak eta berandutzeak justifikatzea, eta justifikatu gabeko bestelako faltak ere bai, ugariak baldin badira. Zuzendariak izaera pedagogikoko neurri zuzentzaile arinak baino ezingo ditu hartu, eta zentroaren titularrari proposamena helarazi beharko dio, baldin eta zehapenak ezartzea badakarte.
- c) Irakasleen eta gainerako ikasleen duintasuna errespetatzea eta eskolako bizikidetzara-arauak betetzea.
- d) Dagokion denbora eta arreta eskaintzea beren ikasgaiei eta agindutako ariketak egiteari.
- e) Zentroaren instalazioak, baliabideak eta altzariak egokiro erabiltzea, eta Eskolak lagatuko musika-tresnen konponketak ordaintzea.

21. artikulua. — *Eskubideak*

- a) Beren duintasuna errespetatua izateko eta tratu egokia jasotzeko eskubidea.
- b) Eraitza akademikoak irizpide objektiboen arabera baloratuak izateko eskubidea.
- c) Eskolak dituen baliabide materialak erabiltzeko eta kalitatezko heziketa jasotzeko eskubidea.
- d) Zuzendariari eta zentroko gainerako organoei iradokizunak, kontsultak edo erreklamazioak egiteko eskubidea.
- e) Ikasleek ezingo dute klasea aldatu espezialitate bereko irakasleen artean. Aldatzeko eskubidea salbuespenez emango da, eta bakar-bakarrak erabat arrazoituta baldin badago, ordutegia bateraezina dela.

2. ATALA

FALTAK ETA ZEHAPENAK

22. artikulua. — *Falta arinak*

Falta arinak dira:

- a) Puntualtasunik eza, behin eta berriro gertatzen bada eta justifikatuta ez badago.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak, behin eta berriro gertatzen ez badira ere.
- c) Jarrera pasiboa, ikasketa-planak garatzera bideratutako jardueretan parte hartzeari dagokionez edo irakasleek ikasketei buruz emandako orientabideei dagokienez.
- d) Gainerako ikasleek ikasteko duten eskubideari muzin egitea.
- e) Zentroaren instalazioen, materialaren edo hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideen objektu edo ondasunei nahita egindako narriadura, larria ez bada.



- f) Diziplinarik ezaren, irainaren edo ofentsaren alorreko egintza ez larriak, eta larriak ez diren eraso fisikoak.
- g) Klase-orduetan jatea edo edatea, baimendutako kasuetan izan ezik.
- h) Edozein ekintza bidegabe, banakakoa zein taldekkoa, zentroko jarduerak aurrera eramatea oztopatzen duena.

23. artikulua. — Falta astunak

Falta astunak dira:

- a) Hutsegite bidegabeak, behin eta berriro gertatzen badira. Falta astunak izango dira, baldin eta hiruhilekoan halako 6 baino gehiago, edo ikasturtean halako 10 baino gehiago badira.
- b) Gainerako ikasleek ikasteko duten eskubideari muzin egitea, behin eta berriro.
- c) Diziplinarik ezaren, irainaren edo ofentsaren alorreko egintza larriak hezkuntza-komunitateko kideen aurka.
- d) Hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideen aurkako eraso fisiko edo moral larriak.
- e) Zentroko materialetan edo agirietan, edo hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideen ondasunetan kalte larriak eragitea, horiek behar ez bezala erabiltzeagatik.
- f) Zentroko jarduerak behar bezala garatzea larriki eragozten duten egintza bidegabeak.
- g) Ikasturte berean hiru hutsegite arin egitea.
- h) Ikasgeletatik, tailerretatik edo jarduerak egiten diren beste guneetatik hezkuntza-materiala edo beste edozer lapurtzea, edo beste ikasleei objektuak lapurtzea.
- i) Ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.
- j) Erretzea edo alkohola edatea, jarduera egiten den instalazioetan.
- k) Indarreko legeriak astuntzat jotzen dituenak.

24. artikulua. — Falta oso astunak

Falta oso astunak dira:

- a) Diziplinarik ezaren, irainaren edo ofentsaren alorreko egintza oso larriak hezkuntza-komunitateko kideen aurka.
- b) Eraso fisiko oso larriak hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideen aurka.
- c) Astuntzat tipifikatutako faltak, baldin eta taldean egiten badira eta/edo nahita horien publizitatea egiten bada.
- d) Dagokion prezio publikoa ez ordaintzea, behin eta berriro.
- e) Hiru falta astun egitea.

25. artikulua. — Falta arinengatiko zehapenak

Honako hauek izango dira falta arinengatiko zehapenak:

- a) Kargu-hartze pribatua edo idatzizkoa; adin txikikoen kasuan, beren familiei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.
- b) Aldi baterako klasetik botatzea: behar-beharrezkoa denean baino ez da egingo. Inolaz ere ez da ikasle bat klasetik bota eta korridoreetan bakarrik utziko azalpenik eman gabe eta zuzendariari horren berri eman gabe.
- c) Hezkuntza-jarduera garatzen eta hobetzen laguntzeko, edo, egoki bada, instalazioetan, materialean edo hezkuntza-komunitateko beste kideen gauzetan eragindako kaltea konpontzeko ezohiko zereginak agintzea.

**26. artikulua.— Falta astunengatiko zehapenak**

Honako hauek izango dira falta astunengatiko zehapenak:

- a) Ohartarazpena, zeina banakako ikasketa-espeditentean jasota geratuko baita.
- b) Aldi baterako zentrotik kanporatzea edo bertan ikasteko desgaitzea, ikasturtea amaitzeko geratzen den tarterako, gutxienez, eta, gehienez, bi ikasturtez (neurria hartzen den hura barne). Neurri hori Zuzendaritza Taldeak proposatu, eta Basauriko Udalak ebatziko du. Ikaslea berriro hartzea ere Udalarik dagokio, Zuzendaritza Taldeak proposamen arrazoitua egin eta gero.
- c) Zentroko jarduerak hobetuko eta garatuko dituzten zereginak egitea, edo hala badagokio, egindako kalte materialak konpontzea.

27. artikulua.— Falta oso astunengatiko zehapenak

Falta oso astunak behin betiko kanporatzea ekarriko du.

28. artikulua.— Organo zuzentzailea

1. 20. artikuluko betebeharrak betetzen ez direla ikusten duen edozein irakasle behartuta egongo da esku hartzeko, bizikidetzaren aurka antzemandako jokabidea zuzentzeko.

2. Falta arinak dagokion irakasle edo tutoreak, edo ikasketaburuak zehatuko ditu, baldin eta idatzizko ohartarazpena egin behar bada. Zuzendariari zehapenak ezarri direla jakinaraziko zaio.

3. Falta astun edo oso astun gisa tipifikatutako arau-hausteak zehatzeko eskumena alkateari edo hark, toki araubidearen araudian ezarritakoari jarraituz, eskuordetutako organoari dagokio.

29. artikulua.— Prozedura

1. Ezingo da inola ere zehapenik ezarri dagokion prozedura izapidetu gabe.

Zehapen-prozedura arautuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidean eta aplikatzea dagokion gainontzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Gertaerek falta arina dakartela joz gero, halakoak zigortzeko eskumena duenari jakinaraziko zaizkio.

Falta arinengatiko zehapenak ezartzeko, ez da beharrezkoa izango alde zuretik espeditentea izapidetzea, entzunaldi-izapidea izan ezik.

3. Falta astun edo oso astuna eragin dezaketen egitateengatiko espeditentea izapidetzea udal organo eskudunak erabakiko du, zerbitzuaren zuzendariak eskatuta. Zuzendariak, bestalde, egitateen, balizko arau-haustearen, eta garrantzitsua izan litekeen beste edozein informazioaren berri eman beharko du.

Edozelan ere, beharrezko informazioa bildu ostean erabakiko da falta astun edo oso astunengatiko diziplina-espeditentea izapidetzea.

4. Prozedura hasi aurretik, edo behin hasita ere, zentroaren titullarrak behin-behineko neurriak hartu ahalko ditu; adibidez, Musika Eskolaren zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere, balizko zehapenak aurreikusitako epean zehar; edo ikaslea taldez aldatzea, behin-behinean.

5. Atal honetan dauden arteko neurri zuzentzaile egokia hautatu beharko da, modu arrazoituan hautatu ere. Ildo horretan, erreparatu beharko zaio, batetik, jokamoldearen izaerari —ea berria den ala errepikatua—; bestetik, hezkuntza-komunitateko beste kideei dakarkien kalteari, eta, azkenik, jokamoldearen zabalkunde-mailari eta horrek komunitate osoari eragindako kalteari.

6. Falta ez dakarten ikasleen jokamolde bidegabeak irakasleek zuzendu beharko dituzte, metodo egokiekin. Edonola ere, neurri zuzentzaile horiek Erregelamendu honetan tipifikatutako zehapenak baino arinagoak izango dira.

**II. TITULUA**
PLAN PEDAGOGIKO OROKORRA**I. KAPITULUA**
HEZKUNTZA-ESKAINTZA**30. artikulua.— Mailak eta espezialitateak**

Basauriko Musika Eskolaren eskaintzak musika-eskolen I., II., III. eta IV. mailak hartzen ditu, dekretu arautzaileak aurreikusitako adar guztietan:

- 1. maila, hastapenak: 5-7 urteko ikasleentzat.
- Zentroaren titularrak egoki ikusiz gero, 0 urtetik aurrera eskaini ahalko da.
- 2. maila, espezialitatearen hastapenak: 8 urtetik aurrerako ikasleentzat.
- 3. maila, espezialitatea finkatzea.
- 4 maila, espezialitatea hobetzea.

Irakatsiko diren instrumentu-espezialitateen eskaintza jasota dago Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolen maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren 49. artikuluan zerrendatutako familietan. Horiez gain, musika- eta dantza-eskolen alorreko eskumena duen sailak berariaz baimendutakoak irakatsiko dira.

Artikulu honetan xedatutakoa aintzat hartuko da Zentroaren Hezkuntza Proiektuak (ZHP) ezarritakoaren kalterik gabe —64/2024 Dekretuaren 43. eta 67. artikuluen arabera, dokumentu horrek jasotzen ditu aplikatu beharreko curriculum-eduki guztiak—.

1. ATALA**1. MAILA****31. artikulua**

1 maila edo hastapenak taldekako irakaskuntza integratua eskaintzen die 5-7 urteko haurrei. Musikarekin harremanetan hasten dira, eta entzumen-gaitasun eta -sentsibilitatea garatzen dute.

Eremu horretako irakaskuntza modu kolektiboan ematen da.

- Musika eta mugimendua, 5-7 urte bitartekoentzat (3 ikasturte).
- Musika-tresna, hastapenak, 6 eta 7 urtekoentzat (1 ikasturte).

1. maila

Ikastaroak	Ikasgaiak
1.1	— Musika eta mugimendua.
1.2	— Musika eta mugimendua.
1.3	— Musika eta mugimendua. — Musika-tresna, hastapenak (tresna-txandakatzea).

2. ATALA**2. MAILA****32. artikulua**

8 urtetik aurrera, ez da adin-mugarik egongo, maila horretan hasteko.

Ikasleek musika-hizkuntza ezagutu eta erabiltzen ikasiko dute, oinarritzko ezagutze-tatik abiatuta. Musika-hizkuntzaren alorreko ezagutzak jasoko dituzte, erritmoa eta melodia praktikatuko dute, koordinatzen ikasiko dute eta sormena landuko dute. 4 ikasturte-tan antolatuko dira, adinaren arabera; eta, horrez gain, egonkortutako adin-tarteetarako talde bereziak eratu ahalko dira.



Eremu horretako irakaskuntza modu kolektiboan zein banaka emango da, eta hone-laxe antolatuko da:

- Musika-hizkuntza (4 ikasturte).
- Musika-tresna, espezialitatea (4 ikasturte).
- Abesbatza (1 ikasturte, 2. eta 4. mailaren artean).
- Talde-jarduera / Musika-taldea (3. mailatik aurrera).

2. maila

Ikastaroak	Ikasgaiak
2.1	— Musika-hizkuntza — Musika-tresna, espezialitatea
2.2	— Musika-hizkuntza — Musika-tresna, espezialitatea — Abesbatza*
2.3	— Musika-hizkuntza — Musika-tresna, espezialitatea — Abesbatza* — Talde-jarduera
2.4	— Musika-hizkuntza — Musika-tresna, espezialitatea — Abesbatza* — Talde-jarduera

3. ATALA

3. ETA 4. MAILAK

33. artikulua

3. eta 4. mailetako ikasgaiak hautazkoak dira:

- Musika-tresna, praktikak.
- Musika-tresna, espezialitatea.
- Abesbatza.
- Beheragoko mailetako hautazko beste ikasgai batzuk, oraindik egin gabekoak, zentroan eskaintzen direnak.

4. ATALA

IRAKASKUNTZA-ERREFORTZUA ETA IRAUNKORRAK EZ DIREN IKASTAROAK

34. artikulua.— *Irakaskuntza-errefortzua*

Beren interesa, gaitasuna edo ardura dela-eta irakaskuntza-errefortzua eskatzen duten ikasleentzako da, eta helburu du irakaskuntza arautuko hautaprobetara aurkeztea. Hala, irakaskuntza-edukiak sarbide-proba gainditzera bideratuta egongo dira.

Ikasketaburuak zehaztuko du formakuntza horrek zer-nolakoa izan behar duen, esku hartzen duten irakasleekin batera. Irakaskuntza-errefortzua jaso ahal izateko, zentroak horretarako ezarritako proba gainditu beharko da.

Ikasleek bi ikasturtez jaso ahalko dute irakaskuntza-errefortzua, gehienez.

35. artikulua.— *Iraunkorrak ez diren ikastaroak*

1. Eskolak ikasleentzat beharrezkotzat jotzen dituen ikastaro eta ikasgai berriak proposatu ahalko dizkio zentroaren titularrari.



2. Eskainitakoen artean musikoterapia ikasgaia egongo da: beharrian espezifikoak dituzten ikasleentzako musika-terapia tailerra, hezkuntza-laguntza gisa eskainiko zaiena, banaka eta taldeka, 12 urtera arteko haurrei.

III. TITULUA

IKASLEAK ONARTZEKO ETA BAJAK ETA UKO-EGITEAK IZAPIDETZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA

IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA ETA ITXAROTE-ZERRENDAA

1. ATALA

IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA

36. artikulua.— *Matrikulazio-arau orokorrak*

1. Zuzendariak proposatu, eta zentroaren titularrak onartuko du Musika Eskolan matrikulatu daitezkeen gehieneko kopurua. Proposamena ikasturte bakoitza hasi aurretik egin beharko da, dauden leku eta irakasleen araberakoa izango da, eta Zentroaren Kontseiluari jakinaraziko zaio.

2. Musika Eskolan sartzeko eskabideak eta aurrematrikulak aurkeztuko dira zentroak urtero-urtero ezarritako modalitatean.

Eskabidea aurkezteak ez dakar, inolaz ere, automatikoki onartua izatea.

Ez da hurrengo ikasturterako tokirik edo ordutegirik gordeko. Beraz, aurreko ikasturteko matrikulak edo ordutegiak ezingo dira gorde, matrikulatutako inorentzat. Matrikulazio-prozesu bakoitzean, ikasleek ordutegi berria eskatu beharko dute, hurrengo ikasturterako aurreikusitakoen artean.

3. Onartuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak Musika Eskolaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko dira.

Onartuen zerrendan, beren izen-abizenak jasoko dira, nortasun-agiri nazionalaren, atzerriarren identifikazio-zenbakiaren, pasaportearen edo horien baliokide den agiriaren ausazko lau zifrarekin batera. Hala egiteko xedatzen du Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 7. xedapen gehigarriak.

4. Dauden tokiak baino eskabide gehiago badaude, itxarote-zerrenda sortuko da.

5. Udalak epez kanpoko matrikulazio-eskaerak baimendu ahalko ditu, zuzendariak hala proposatuta, baldin eta eskatutako taldean edo musika-tresnan behar beste leku badaude.

6. Ezingo dute matrikula berritu Eskolaren ordainagiriren bat ordaintzeke daukate-nek, ordainketa egin arte.

37. artikulua.— *Ikasleak onartzeko irizpideak*

Tokiak esleितuko dira matrikulazio-epea amaitu eta gero, aintzat hartuta erroldatzea, adina eta zozketa.

1. *Erroldatzea*

Lehentasuna izango dute Basauriko udalerriko biztanleek. Musika Eskolan lehenengo aldiz matrikulatu nahi, eta baldintza hori betetzen ez dutenek, matrikula formalizatu ahalko dute, leku hutsak baldin badaude.

2. *Adina*

- Onartuak izatea eskatzen duten urtean 8 urte edo gutxiago beteta daukatenak: 10 puntu.
- Onartuak izatea eskatzen duten urtean 9-12 urte beteta dutenak: 5 puntu.
- Gainerako eskatzaileak: 0 puntu.

**3. Zozketa**

Zozketak ezarriko du tokiak esleitzeko hurrenkera, baldin eta, erroldatzearen eta adinaren irizpideak aplikatu eta gero, berdinketak jarraitzen badu edo dauden eskaera guztiak ezin badira artatu.

Era berean, hurrenkera horren arabera eratu eta kudeatuko da itxarote-zerrenda, eta, hala, uko egiteagatik edo bajagatik sortutako leku hutsak zozketaren hurrenkerari jarraituz esleitu dira, 41.d) artikuluan ezarri bezalaxe.

Adierazitako lehen aukerako espezialitatean edo musika-tresnan tokiak lortzen ez duten eskatzaileak bigarren edo hirugarren aukeran onartuak izan ahalko dira, leku hutsak baldin badaude. Era berean, beren eskabidearekin bateragarria den beste edozein leku huts eskaini ahalko zaie.

Eskaintza horiek eta itxarote-zerrenda 41. artikulua xedatutakoarekin bat kudeatuko dira.

38. artikulua.— Aurretiko izen-ematea

Eskolan jardunean dauden ikasleek aurretiaz izena emateko epe bat ezarriko da.

Gero, ikasleek matrikula egiteko epe espezifiko bat izango dute. Epe hori amaitu eta gero ikusiko da zenbat leku dauden hutsik ikasle berrientzat.

Erregelamendu honen indarraldiaren lehenengo urtean, xedapen iragankor baka-rean xedatutakoa aplikatuko da.

39. artikulua.— Matrikulazio-egutegia

1. Ikasturte bakoitzean matrikulazio-egutegi bat onartu, eta behar besteko aurrera-penarekin argitaratu beharko da.

2. Faseak:

1. Eskolan jardunean dauden ikasleentzako aurretiko izen-emate epea.
2. Ikasle berriak Eskolara sartzeko matrikulazio-epea.
3. Onartutako ikasleen behin-behineko zerrendak argitaratzea.
4. Onartutako ikasleen behin betiko zerrendak argitaratzea.
5. Onartutako ikasleek matrikula egitea eta ordaintzea.

2. ATALA**ITXAROTE-ZERRENDAA****40. artikulua.— Itxarote-zerrenda sortzea**

Zentroak eskainitako tokiak baino eskabide gehiago badaude, itxarote-zerrenda eratuko da.

Itxarote-zerrenda sortuko da ikasturte hasieran, eta ez da sekula hurrengo ikastur-teetara luzatuko.

41. artikulua.— Itxarote-zerrendaren ezaugarriak

Honako hauek dira itxarote-zerrendan daudenek zentroari begira dituzten ezauga-riak:

- a) Plazaren eskatzaile formalak dira.
- b) Aukera dute hutsik dagoen toki bat betetzeko, baldin eta haiek eskatutakoaren ezaugarri berak baditu (ikasketa-plana, formakuntza-zikloa, espezialitatea, ikas-gaia, adina...).
- c) Zentroaren Administrazioak eskabidearekin bateragarria den edozein plaza hu-tsaren berri emango die.
- d) Eskatzaileek hurrenkera-zenbaki bat jasoko dute. Zenbaki hori da aintzat hartuko dena zentrori sartzeko aukeran dauden plazen berri emateko.



Hiru egun balioduneko epean ezinezkoa izan bada interesdunarekin harremanetan jartzea, Zentroaren Administrazioak horren berri jaso, eta zerrendako hurrengo eskatzailearengana joko du.

- e) Interesdunak uko egin ahalko dio zentroak eskainitakoari.
Eskatutako espezialitate bereko plaza bada, ikasturte horretako itxarote-zerrendan geratzeko aukera galduko du.
Eskainitako plaza ez bada eskatutako espezialitatekoa, uko egin ahalko dio, dagozkion eskubideak galdu gabe.
- f) Eszedentzia-egoera amaituta ikasketei berrekin nahi dietenek lehentasuna izango dute matrikulatuta zeuden espezialitatean onartuak izateko, Musika Eskolara-ko hautagai berrien aurretik.

II. KAPITULUA

BAJAK, ESZEDENTZIAK ETA UKO EGITEAK

42. artikulua. — *Bajak*

1. *Borondatezko baja*

- a) Ikasleak berak eskatutakoa, ikasgai jakin bat edo guztiak utzi nahi baditu.
Ez du inolako lehentasunik izango, Musika Eskolara berriro sartzeko eskabidea egitean.
- b) Ikaslearen familiak edo haren legezko ordezkariak eskatutakoa.
Kasu bietan, baja ematen den hilabete osoa ordaindu beharko da. Bestalde, baja idatziz eskatu beharko da, hil bakoitzaren 15a baino lehenago, ezinbesteko egoeretan salbu.
Eskolako Idazkaritzan egongo da eskuragarri baja formalizatzeko orria. Orri hori, sinatuta, entregatu ezean, baja ez da gauzatuko, aurretiaz telefonoz edo posta elektronikoz jakinarazi arren ere.
Ikasturtean zehar hil bakoitzaren 10a baino lehenago izandako bajek ez dute ekarriko hilabete horretako zenbatekoa ordaindu behar izatea.

2. *Nahitaezko baja*

Baja-arrazoia izango da:

- i. Ezarritako prezioa ez ordaintzea, horretarako bidezko arrazoirik egon gabe.
- ii. Ikasturtean zehar pilatutako bi hilabetetan zehar ez ordaintzea. Edozelan ere, ezingo da zorrik egon, urteko matrikula berritzeko unean. Kasu bietan, zuzendaria-riak idatziz jakinarazi beharko dio familiari edo legezko ordezkariari egoera zein den, 15 eguneko aurrerapenarekin, gutxienez. Era berean, ohartarazi beharko dio ordainketa egin ezean, baja emango dela.
- iii. Zentrora ez etortzea, behin eta berriro eta bidezko arrazoirik tartean egon gabe, ez etortze hori falta astuna bada.

Ez etortzea gaixotasunagatik, istripuagatik edo medikuaren agiri bidez zein bestelako agiri ofizial bidez behar bezala egiaztatutako egoera batengatik bada, ikasleak ez du ofizialtasuna galduko, eta hurrengo ikasturtean berriro matrikulatu ahalko du sarbide-proba egin beharrik gabe, zentroaren titularrak hala erabakitzen baldin badu, Zuzendaritza Taldeak proposatuta eta ikaslearen egoera ezagutzen duen irakasle-taldeak aholkatuta. Erabaki hori ikaslearen espedientean jasota geratuko da.

Matrikula-eskubideak ordaintzeak ez du, inolaz ere, lehen deskribatutako egoera horietan zentroko plaza erreserbatzea ekarriko.

43. artikulua. — *Eszedentziak*

Ikasleek eszedentzia eskatu ahalko dute, idatziz, gaixotasuna, ikasketak edo lana direla eta, baldin eta eszedentzia hori ikasturtea baino luzeagoa ez bada.



Eszedentzia-egoeratzat joko da ikasturte osoan edo zati batean klaseetara ezin joatea gaixotasuna, ikasketak, edo lan- edo familia-egoera berezia direla eta.

Eszedentzia eskatzeak ez du esan nahi automatikoki emango denik. Eszedentziari buruz ebaztea zentroaren titularrari dagokio, baina zuzendariak ados agertu beharko du. Edozelan ere, eszedentzia jarraian datozen bi ikasturtez luzatu ahalko da, gehienez, eta urtero eskatu beharko da.

Eszedentziak ez dakar plaza gordetzea, baina bai lehentasuna izatea matrikulatuta egondako espezialitatean, ikasle berrien aurrean.

44. artikulua. — Uko egiteak

Edozein interesatuk uko egin ahalko dio bere plazari. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko dio zuzendariari, eta, hark, Udalari. Era berean, ikasleak bere plazari uko egin diola joko da, baldin eta ikasturtearen lehenengo hamabostaldian ez bada klasera agertzen, zuzendariari jakinarazitako bidezko arrazoirik tartean egon gabe. Kasu horretan, plazari espresuki uko egin diola ondorioztatuko da, eta ordezeko ikasle bat topatuko da.

IV. TITULUA

INSTALAZIOAK, MUSIKA-TRESNAK ETA BESTELAKO MATERIALAK ERABILTZEKO BALDINTZAK

I. KAPITULUA

INSTALAZIOAK ERABILTZEA

45. artikulua. — Instalazioak erabiltzea

1. Musika Eskolako instalazioak hezkuntza-jarduerarako eta zentroari lotutako taldeek entseatzeko erabiliko dira, nagusiki.

2. Debekatuta dago behar bezala baimenduta ez dagoen edozein jarduera (eskola partikularrak, jarduera ekonomikoak, musika edo dantzarekin zerikusirik ez duten bile-rak...).

3. Edozelan ere, Eskolak instalazioen ohiko barne-erabilera egokitu ahalko du, bermatzeko bere jarduera behar bezala garatzen dela (eskolak, entzunaldiak, ikastaroak eta abar), betiere zentroaren titularrari horren kontu emanda. Instalazioak hirugarrenei lagatzeko edo ohikoaz besteko erabilera egiteko, zentroaren titularraren baimena beharko da.

4. Zuzendaritza Taldeak eta Pedagogia Koordinazio Orokorrak baimenduko dituzte eskabideak, eta zerbitzuaren ohiko funtzionamendua bermatzeko neurriak arautuko dituzte, bai eta lehentasunak ere, bat egiten duten jarduerak baldin badaude.

5. Ikasleei ikasgelak laga ahalko zaizkie ikasteko eta/edo taldean entseatzeko, baldin eta horrek Eskolaren heziketa-jardueran eragiten ez badu edo gelak irakasleek erabili behar ez badituzte.

Interesdunek Idazkaritzan eskatu beharko dute ikasgela, eta, aurretiaz, irakasleei jakinarazi.

Esleitutako ikasketa-orduetan zehar, ikasleak izango dira instalazioa eta erabilitako materiala egoera onean mantentzearen arduradunak.

II. KAPITULUA

MATERIALAK ETA MUSIKA-TRESNAK ERABILTZEA

46. artikulua. — Irakasleek materialak eta musika-tresnak erabiltzeko baldintzak

Irakasleek beren eskura jarritako baliabide materialak, musika-tresnak eta instalazioak erabili ahalko dituzte Hezkuntza Proiektuan aurreikusitako xedeetarako eta, betiere, zentroaren erabilera arautzen duten arauekin bat.



Irakasleak izango dira, pertsonalki eta zuzenean, ikasgelako materiala eta musika-tresnak behar bezala erabiltzearen erantzule, bai eta horiek behar bezala zaintzearen eta ondo funtzionatzearen arduradun ere.

III. KAPITULUA

GARDENTASUNA, INFORMAZIO PUBLIKOA ETA ESKOLAREN PRESENTZIA DIGITALA

47. artikulua.— *Gardentasuna, informazio publikoa eta Eskolaren presentzia digitala*

1. Musika Eskolak webgune ofizial bat izango du, udal webgunean edo hari lotuta, zeina informazio publikorako bide bakarra eta eguneratua izango baita.
2. Espazio horretan honako hauek argitaratuko dira, modu argi eta irisgarrian:
 - a) Indarreko hezkuntza-eskaintza.
 - b) Izena eman eta matrikula egiteko epeak eta prozedurak.
 - c) Prezio publikoak, dagokion ordenantza fiskalerako lotura zuzenarekin.
 - d) Eskola-egutegia eta jardueren urteko egitaraua.
 - e) Musika Eskolara sartzeko, bertan geratzeko eta baja emateko irizpideak.
 - f) Harremanetarako eta herritarrei arreta emateko bideak.
3. Eskolak bermatu beharko du argitaratutako informazioa benetakoa, eguneratua eta irisgarria dela, eta ekidin zaharkituak dauden edo ofizialak ez diren orriak egotea.
4. Zuzendariak bermatuko du informazio publikoa koherentea, homogeneoa eta argia dela; bereziki, tarifei, prozedurari eta hezkuntza-eskaintzari dagokionez.
5. Eskolaren presentzia digitalak bat egingo du gardentasunaren, irisgarritasun uni-bertsalaren eta zerbitzu publikoaren printzipioekin.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen Xedapen Gehigarria.— *Eskola-egutegia*

Ikasturtea finkatuko da eskola dagoen autonomia-erkidegoko hezkuntza sailaren eta Zentroaren Kontseiluaren irizpideen arabera, aintzat hartuta, betiere, estatuan, autonomia-erkidegoan eta udalerrian dauden jaiegunak eta dagokion hezkuntza-agintaritzak eskolarik gabeko eguntzat ezarritakoak. Kasu horietan, jaiegun horiekin bat egiten duten eskolak ez dira berreskuratuko, inolaz ere.

Bigarren Xedapen Gehigarria.— *Publizitatea*

Eskolak eguneratuta mantenduko du 64/2024 Dekretuaren 27. eta 68. artikuluek eskatutako informazio publikoa, bai bere web-atarian, bai zentroaren titularrak adierazitako zabalkunderako beste plataforma publiko zehatzetan ere.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen Iragankor Bakarra.— *Matrikulatzeko prozedura iragankorra*

Erregelamendu hau aplikatzen den lehenengo urtean zehar, ikasle sartu berritza hartuak izango dira Erregelamendua indarrean sartzen den datan Basaurin erroldatuta ez dauden eta Musika Eskolan matrikulatuta ez dauden ikasleak.

Data horretan erroldatuta ez baina matrikulatuta badauden ikasleak ez dira ikasle sartu berritza hartuko eta ikasten jarraitzeko eskubideari eutsiko diote, aplikatzea dago-kien baldintza orokorretan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2016ko urtarrilaren 28an behin betiko onartutako eta 2016ko otsailaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (35. zenbakikoan) argitaratutako Basauriko Musika Eskolaren Barne Araubidearen Erregelamendua.



AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetatik Lehenengoa. — *Araubide juridikoa*

Erregelamendu honetan aurreikusi gabeko kontu guztietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolen maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua aplikatuko da.

Azken Xedapenetatik Bigarrena. — *Indarrean sartzea*

Erregelamendu hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen den datatik hamabost egunera, eta datorren ikasturte hasieratik aplikatuko da.

Azken Xedapenetatik Hirugarrena. — *Interpretazioa*

Basauriko Udalak eskumena izango du Erregelamendu hau interpretatzeko, aplikaziotik eratorritako zalantzei buruz ebazteko eta Erregelamendua aurrera eramateko beharrezkoak diren barne-jarraibideak emateko, 64/2024 Dekretuan eta aplikatzea dagokion sektore-araudian ezarritakoaren kalterik gabe.